



Kirolaren Etxea. Nafarroa Arena Pabilioia
Aizagerria Pza. 1.a, 31006 Iruñea
Tfnoa.: 948 22 96 20
info@fnajedrez.com
www.fnajedrez.com

2019KO NAFARROAKO ESKOLEN ARTEKO II. TXAPELKETA

Torneoko Behin-Betiko Oinarriak

1.- Antolakuntza.

Nafarroako Xake Federazioak Paz de Ziganda Ikastolaren laguntzarekin antolatuko du.

Nafarroako Xake Federazioa antolakuntzaz eta arbitrajeaz arduratuko da.

<http://fnajedrez.com/>

Txapelketa Atarrabiako Paz de Ziganda Ikastolan jokatu da.

<http://www.pazdezigandaikastola.net/> Torneoa

2019ko apirilaren 7an izango da.

2.- Parte-hartzea eta izena emateko epea.

Txapelketa irekita dago Lehenengo Hezkuntzako Ikastetxeko edozein talde ordezkariak parte har dezan.

Taldeak 4 jokalariz izan behar dituzte, eta gehienez 2 ordezkari. Osotara gehienez 6 jokalariko taldeak sortuz.

Indar-ordena FIDEko ELOren arabera osatuko da, jokalariek rating hau badute.

Inskripzioa erantsitako inskripzio orriaren bitartez tramitatuko da martxoaren 29ko 14:00ak baino lehen inscripciones@fnajedrez.com posta elektronikoz.

Ikastetxe bakoitzak nahi duen talde kopurua aurkeztu ahalko du. Talde hauek monitore arduradun bat izan beharko dute eta berak Lehiaketako Delegatuaren lanak egingo ditu.

Modu berean, Lehiaketarekin batera hainbat jardura hezigarriak programatuko direnez, Ikastetxeko ikasleek edota Zuzendari Batzordeak parte hartzea eskatzen dugu.

Talde bateko partaidea izateko ezinbestekoa izango da eskola horretan eskolarizatua egotea edo aurreko bi denboraldietan bertan ikasi izana (gaur egun bere ikastetxeak parte hartzen ez badu) Ikastetxeko zuzendaritzaren ziurtagiria erantsi beharko da inskripzioaz gain.

2007. urtean eta geroago jaiok parte hartu ahalko dute.

Salbuespen gisa, Lehenengo Hezkuntzan dauden 2006an jaiok izena eman ahal dute ere bai (Espainiako Txapelketetan ezin da).

Inskripzioarekin batera, Zentroko Zuzendaritzaren ziurtagiria eta gurasoek edo tutoreak sinatutako “banakako datuen uztearen baimeneko fitxa” erantsi beharko dira.

Ikastetxeak 50€-ko kuota ordaindu beharko du lehenengo taldearengatik eta 25 euro gehiago hurrengoengatik.

Ordainketa, Nafarroako Xake Federazioaren kontu korrontean egin beharko da:



Kirolaren Etxea. Nafarroa Arena Pabilioia
Aizagerria Pza. 1.a, 31006 Iruñea
Tfnoa.: 948 22 96 20
info@fnajedrez.com
www.fnajedrez.com

Sabadell Banketxea ES04 0081 4363 09 0001031904. Ordainketaren frogagiria inscripciones@fnajedrez.com posta elektronikora bidali beharko da.

3.- Joku sistema eta egutegia.

FIDEko Lehiaketa-Araubide Orokorra erabiliko da.

Programa informatikoaren bitartez kudeatutako 7 txandako Xake Azkarreko Sistema suitzarra erabiliko da.

Taldeak lau mailatan arituko dira. Puntuazioa norgehiagokaren arabera zenbatuko da (2,1,0), maila bakoitzaren guztirako puntuazioa berdinketa haustearen lehenengo sistema izanda. Erritmo jokua: 20 minutu partida osorako.

Ordutegiak:	1. Txanda	10:00.
	2. Txanda	11:00.
	3. Txanda	12:00.
	4. Txanda	13:00.
	5. Txanda	16:00.
	6. Txanda	17:00.
	7. Txanda	18:00.

4.- Informazio osagarria.

Aurkezpenera garaiz iristea eskatzen da (9:45etan izango da). Bertan, lehiaketarekin batera gauzatuko diren jarduera ezberdinen ordutegiak eta tokiak zehaztuko dira. <http://www.pazdezigandaikastola.net/eu/localizacion>

Jarduera paraleloak

- Xake hezigarriari buruzko hitzaldia.
- Txokolatada.

Gomendatzen da bokata edo halako zerbeit eta fruta ekartzea bazkaltzeko (14-15h.) Antolatzaileek txokolatada eskainiko dute 15:30etik 16:30era.

5.- Sariak: Sari-banaketa 19:00etan hasiko da.

-Taldea Txapelduna: Trofeo eta ordezkatzeko eskubidea: Irabazleak Nafarroa ordezkatzeko du Espainiako Txapelketetan eta Nafarroako Xake Federazioak sei kirolarientzako eta monitore batentzako ostatua, mantenua eta joan-etorria ordainduko du.

-Txapeldunordea: Trofeoa.

-Hirugarren Sailkatua: Trofeoa.

Parte-hartzaile guztiek oroigarritzko opari bat izango dute.

Ikastetxe parte-hartzaile bakoitzak Xake Hezigarriko liburu-sorta jasoko du.



Kirolaren Etxea. Nafarroa Arena Pabilioia
Aizagerria Pza. 1.a, 31006 Iruñea
Tfnoa.: 948 22 96 20
info@fnajedrez.com
www.fnajedrez.com

Informazio gehiagorako, deitu 948 22 96 20 telefonora edota idatzi info@fnajedrez.com posta elektronikora.

Torneoko Zuzendaria: Mikel Huerga Leache

Laguntzaileak



Nafarroako  **Gobierno**
Gobernua **de Navarra**
